


## Kronologia

- 1512 : Testuetan lehen aldiz aipatuak dira euskal balea arrantzako ontziak eta euskal arrantzaleak, **Ternuan**.
- 1560 inguru : Euskal arrantza ontzidia (ipar nola hego) «lur berrietan» (Terres neuves) bere gorenean zen, 80 ontzi inguru eta milaka itsasturi bertan izaki. Ontzi horiek bakailoa eta balea zituzten harrapatzen.
- 1610aren ondoren : Frantzia aldeko euskaldunak San laurendi badia aldera eta, batez ere, Spitzberg (**Gronland'**) aldera joan ziren arrantzara. Lehiakide zituzten holandarrak eta ingelesak.
- 1635 : Ziburuko Martin Zopite kapitainak urina ontzietan bertan urtzeko prozedura asmatu zuen.
- XVII. mendearen bigarren erdialdean : Euskaldunak balearen gibeletik Groenlandiaren mendebalderaino eta Hudson badiaraino (**iparraldeko badia handia**) doaz. Baina gero eta eskasagoa da jarduna eta hala ontzi kopurua ere.
- 1715 eta 1730 artean : Bakailao eta balea arrantza erruz handitu zen. 80 ontzi inguru abiatzen ziren urtero, Lapurdiko portuetarik.
- 1730-1763 : euskal arrantza jardun handia beheraka joan zen. Frantziak Ingalaterrak garaitu zuen, euskaldunak ezin ziren gerora, Saint Pierre eta Mikeluneko itsas hegian baizik aritu. Balea arrantza desagertu zen.

### Mapa : balea arrantzako Ipar Atlantikoko zonak

Mapan seinalaturik,  
euskaldunek balea arrantzan  
ibiltzen zituzten aldeak.



1-Bereizi behar dira Groenlandiako uhartera eta Gronland; azken hau arrantza leku bat da, Groenlandia, Islandia eta Spitzberg artean. Ikus 1. dokumentua .


**1. dokumentua (transkripzioa)**

De par le Roi

Chers bien amez<sup>1</sup>

A cause des empêchements qui ont été imposés à nos sujets pour la pêche des baleines, le trafic a été perturbé. Nous avons eu des entretiens avec l'ambassadeur de Hollande pour permettre que les vaisseaux français et hollandais réunis aient plus de force et de liberté dans leur navigation. Cette affaire ayant été ainsi réglée, vous ferez savoir à tous les marchands et marins qui pratiquaient cette activité, qu'ils se préparent à partir à la prochaine saison. Ils pourront se joindre aux Hollandais, faire avec eux le voyage de Gronland et pratiquer la pêche. [...]

Donné à Paris le 16 septembre 1617  
Louis



E dépôt Bayonne EE 87  
Baionako herri artxiboa

1) Dokumentua aurkez ezazu : Zer da? Data. Nork sinatu zuen?

---




---

2) Zer dio Baiona hiriko agintariei igorri gutunak?

---



---



Balea ihizia XVIII. mendean. Henri-Louis Duhamel du Monceau, *Traité général des pesches et histoire des poissons*, Paris, 1777


**2. dokumentua. Arpoilariei buruzko oroitzapena (1732) Laburpen baten transkripzioa :**

« Mémoire pour Monsieur de Champeaux intendant de commerce en France à Séville au sujet des harponneurs.

On appelle harponneurs les matelots qui au voyage de la baleine ont la charge de jeter les harpons aux baleines.

Dans chacun navire on met autant d'harponneurs comme il y a de chaloupes pour cette pêche, en sorte que chaque harponneur a sa chaloupe avec huit hommes d'équipage donc il est le chef. Quand les chaloupes sont en pêche et vont attaquer les baleines, l'harponneur est à la proue tenant le bras levés et l'harpon à la main. Le matelot le plus adroit après lui et qui doit être un homme de sa confiance et choisi par lui même, est derrière ou au timon de la chaloupe. On l'appelle le maître de la chaloupe et il est chargé de faire faire les mouvements les plus convenables pour mettre l'harponneur à portée de bien jeter l'harpon.

Il faut être naturellement adroit brave et vigoureux pour être harponneur et joindre à tous ces avantages une longue expérience. Parce que le succès de cette pêche dépend principalement de leur capacité, les armateurs font une très grande attention au choix des harponneurs. [...]



E dépôt Saint-Jean-de-Luz HH1 /5/29  
Donibane Lohizuneko herri artxiboa

**Zer da arpoilaria ?**

**Nola egiten du lan ?**

---




---



---

**3. dokumentua. Donibane Lohizuneko itsasontziak eta itsasturiak, Luis XIV.ren erregealdian.**



Donibane Lohizuneko hirian diren itsasturien kopuruaren zerrenda orokorra. 1690  
 E dépôt Saint-Jean-de-Luz HH1/2/18. Donibane Lohizuneko herri artxiboa.  
 Dokumentuaren azken-aitzineko orrialdean den erroldaren transkripzioa (jatorrizko ortografia atxiki dugu) :

Capitaines de navires	38	Absents en voyage a Quebecq et ailleurs	26
Maîtres des barques et Pinaces	20	Vieux hommes et autres incapables de servir	20
Pilottes	20	charpentiers qui ont été et qui sont encore actuellement à Rochefort	7
Contremaîtres terneuviers et balleniers	25	18 mathelots qui ont servi aveq Mr Feran	18
harponniers	23	20 mathelots qui sont allés au service à la fin de l'année 1688	20
Transheurs de morue	11	8 qui sont allés au service au mois de janvier 1689	8
Charpentiers de navire		50 mathelots qui sont allés au service du Roy au moi de mars dernier, parmi lesquels et autres il y a plusieurs qui sont morts.	50
Thonneliers	33		
Total officiers	193		
Mathelots présents	170		

**Galderak**

Azal ezazu zer den «Ternurakoa». Kategoria horretako zenbat ontzi da ?

---

Azal ezazu zer den «balea arrantzontzia». Zenbat ontzi?

---

Zein adineko dira marinel zaharrenak ? Gazteenak ?

---

Non ziren Donibane Lohizuneko marinelak testuaren garaian?

---

Nork eskatuko zuen itsasturi horien zerrendak egin zitezen eta zergatik ?

---



## Hiztegia

### Itsasoari buruzko hiztegia

**Gerla ontzitegia** : Ontziak egiteko edo konpontzeko lekua.

**Pilotua** : ontzia portu batera hurbiltzean, kapitainari hurbiltze maniobretan laguntzeko eta gida egiteko ontziratzen den itsasturia da. Bi mota daude: kanpoko pilotuak itsas hegiak ezagutzen ditu eta barneko pilotuak ontziak ibai eta itsasadarretan gidatzen ditu.

**Pinaza** : bela eta arrauneko txalupa, baleak hurbiltzeko erabilia. 2. dokumentuan *txalupa* deitua da.

**Ontzi zurgina** : itsasontzi bateko zurezko lanen egilea.

**Dupagilea** : dupak egiten, konpontzen eta hesten dituen; dupak egur zerrendak bilduz egin ontziak dira. Dupetan eramaten zituzten itsasturien edateko ura eta sagarinoa, bai eta baleen urina ere.

### Historia eta geografiari buruzko hiztegia

**1688-1689** : «Augsburgotar Ligaren gerla» deiturikoan, Luis XIV.ak itsasoan puxantak ziren Ipar Europako herrialdeen aurka egin zuen. Frantses ontzidia indar betean zen, baina ez zuen arrakastarik ukan eta, azkenean, aurkariak garaitu zuten.

**Job Forant ou Foran** : Itsas armadako aitzindaria zen, Re uhartean sortua. Erregearen itsas armadan komandante aritu zen hastapenean eta gero, eskuadraburu, 1692an hil zen arte.

**Rochefort** : Atlantikoko itsas hegiko hiria; bertan, Luis XIV.ak bere itsas armadarentzako gerla ontzitegi bat eraikiarazi zuen.

**Québec** : Kanadako San Laurendi itsasadarren inguruko eskualdea; frantsesek kolonia bat ezarri baitzuten han: «Frantzia Berria».